

ARTIKUTZAKO SARRERARI, ERABILERARI ETA JARDUEREI BURUZKO INSTRUKZIOA



ARTIKUTZAKO SARRERARI, ERABILERARI ETA JARDUEREI BURUZKO INSTRUKZIOA

AURKIBIDEA

1.- SARRERA

2.- HELBURUAK

3.- SARTZEKO ETA ZIRKULATZEKO ARAUAK

4.- JARDUEREN ARAUAK (SAN AGUSTIN JAIA IZAN EZIK)

5.- EKIPAMENDU PUBLIKOEN ARAUAK: ATERPETXEA ETA OSTATU ZAHARRA

ERANSKINAK

1. SAN AGUSTIN JAIAREN OSPAKIZUNA

2. DONOSTIAKO UDALAREN TITULARITATEKO DEN ARTIKUTZA FINKAK GOIZUETA, LESAKA, ARANTZA, ZUBIETA ETA BEINTZA-LABAIEN UDALEN HERRI-LURREKIN DUEN BANALERROKO LARREAK APROBETXATZEA ERAENDUKO DUEN ORDENANTZA/BALDINTZA-AGIRIA



1. SARRERA

Artikutza Etxaldea Donostiako Udalak erosi zuen 1919. urtean, bertako ur baliabideak ustiatzeko eta edateko urez Donostia hornitu ahal izateko. Kudeaketa irizpide batzuk finkatu zituen horretarako, eta, horien arabera, ekintza guztien xedea zen ura ahal bezain garbia lortzea, artean aldez aurretik inolako tratamendurik eman gabe kontsumitzen baitzen. Hori lortzeari begira, baldintza hori betetzen zela bermatuko zuen araudi oso zorrotza onartu zen. Horren puntu nagusietako batzuk ziren artzaintzaren debekua eta etxaldeko bisitarien sarrera arautzea.

Denborarekin, ordea, hasierako arau horiek zorrotzegiak zirela pentsatu zuten, eta, 1995. urtean, Artikutzarako araudi berria onartu zuen Udalak. Araudi hori 2002an eguneratu zen, eta indarrean egon da, instrukzio hau onartu den arte.

1975ean, Añarbeko urtegia eraiki zen, eta urtegi horretan biltzen da gaur egun Donostiako eta eskualdeko kontsumora bideratutako ura. Nolanahi ere, Artikutza Etxaldea Añarbeko iturburua da oraindik eta, beraz, edateko uraren hornidurarako arro nagusia; hortaz, babesteko neurriak aplikatu behar dira, ur produkzioa bermatzeko bai kuantitatean bai kalitatean. Horrez gain, haren balio natural handia dela eta, Artikutza lege babestuta dago, eta 2000 Natura Sarearen barruan, 2004. urteaz geroztik. Hori dela eta, enklabea babestu beharra dute kudeatzaileek eta jabeek, eta neurriak ezarri behar dituzte, horren barruan dauden habitat eta espezie babestuak egoera egokian daudela bermatzeko.

Ezarri beharreko neurri eta arau horien artean kokatzen da, beraz, Artikutza Etxaldearen erabilera publikoari buruzko instrukzio hau.

2. HELBURUAK

Instrukzio honen helburu nagusia da enklabe horretako erabilera publikoa eta babesa bateragarriak izatea, azkenekoari lehentasuna emanez eta eremuko habitataren eta espezieen egoera ona bultzatuz.

Beste helburu garrantzitsu bat da biodibertsitatearen, oro har, eta enklabe zehatz horren balioak ezagutzera ematea, eta herritarrek horren gainean sentsibilizatzea.

Azkenik, Artikutzako Etxaldearen kontserbazioa eta kudeaketa egokia bermatu nahi da.



3. SARTZEKO ETA ZIRKULATZEKO ARAUAK

3.1.- Artikutza Etxaldera ezein garraiobide motordunez sartzeko, beharrezkoa izango da aldeztu aurretik Donostiako Udalaren baimena edukitzea.

3.2.- Ibilgailu motordunez sartzeko baimenak Udaleko Udalinfoko bulegoetan emango dituzte, eta horretarako 010 (Donostiatik deituz gero) edo 943 481000 telefono zenbakietara dei daiteke.

3.3.- Eguneko 25 ibilgailu motordun baimenduko dira, gehienez ere, eta 5 ibilgailu sartu ahal izango dira, baimen bakoitzeko; kopuru horietan ez dira zenbatuko aterpetxean dauden autobusak eta taldeak. Autobusez sartu behar diren talde handiek eskaera bat aurkeztu beharko dute, bisitaren arrazoiak zehaztuz.

3.4.- Baimenak, oro har, egun bakar baterako emango dira, eta bisitarako ordutegia hau izango da: 8:00-20:00. Salbuetsita daude aterpetxeko egonaldiak, sartzeko baimena izango baitute egonaldiak iraun bitartean.

3.5.- Aurreko arau orokorraren salbuespen gisa, baimen bereziak eskuratu ahal izango dira denbora gehiagorako, baina soilik hezkuntzako, ikerketako edo antzeko jarduerak egiteko. Horretarako, idatzi arrazoitu bat aurkeztu beharko da Udalinfon edo Udaleko Osasun eta Ingurumen Zuzendaritzan. Idatzi horretan, baimen berezia eskatzeko arrazoiak azaldu eta justifikatu beharko dira, eta aurreikusitako jarduerak deskribatuko dira.

3.6.- Segurtasun arrazoiak direla eta, debekatuta dago 10 metrotik gorako luzera duten ibilgailuak etxaldera sartzea.

3.7.- Debekatuta dago ibilgailuak aparkatzea sarreran dagoen atetik (Eskas) herria hasten den lekuraino; hortaz, Eskaseko aparkalekua eta Artikutza herriraino izango dira aparkatzeko gunak bakarrik. Ibilgailuek ezingo dute zirkulatu herritik harago, kasu hauek izan ezik:

- Donostiako Udaleko zerbitzuko ibilgailuak.
- Etxaldean bizi diren pertsonen eta haien senideen ibilgailuak.
- Aterpetxean dauden pertsonak, bertaraino zirkulatzeko aukera izango dutenak.

Sartzea beharrezkoa den beste kasu batzuetarako, berariazko baimena eman beharko du Osasun eta Ingurumen Zuzendaritzak (edo Artikutzako administrariak edo zaindariak, larrialdia izanez gero).



4. JARDUEREN ARAUAK:

4.1.- Bisitek, oro har, jolas-hezkuntza-ingurumen xedea izango dute. Aipatutakoez bestelako jardueraren bat egin nahi duen pertsonak edo pertsona taldeak horretarako baimen espezifikoa eskatu beharko du, Udalinfon edo Osasun eta Ingurumen Zuzendaritza.

4.2.- Debekatuta dago ehiza eta arrantza egitea barruti osoan.

4.3.- Artzaintza debekatuta dago barruti osoan. Salbuespen gisa, Artikutzan bizi diren pertsonak baimena eskatu ahal izango dute, baldin eta autokontsumorako artzaintza jarduera bat bada. Horretarako lursail itxiak edo ukuiluak erabiliko dira; animaliei aplikagarria zaien legedian ezarritakoa bete beharko da; eta, Donostiako Udalak banan-banako baimen espezifikoa eman beharko du, aldez aurretik.

Bestelakoetan, donostiako udalaren titularitatekoa den Artikutza finkak Goizueta, Kesaka, Arantza, Zubieta eta Beintza-Labaien udalen herri-lurrekin duen banalerroko larreak aprobetxatzea eraenduko Nafarroako Gobernuak ezarritako oinarriekin bat etorriko da. Oinarri horiek aipatutako erakunde guztien adostasuna du eta dokumentu honetan atxikita dago (2.eranskina).

Konpainiako txakurrak lotuta eramango dira, edo haien jabearen kontrolpean, une oro.

4.4.- Debekatuta dago etxaldeko landareak errotik ateratzea edo kaltetzea, edozein eratako animaliak harrapatzea, eta elementu naturalak edo Artikutzako ondare historikoaren elementuak ateratzea, gaztainak, onddoak eta perretxikoak biltzea izan ezik. Elementu horiek autokontsumorako bakarrik bilduko dira. Onddoei eta perretxikoei dagokienez, ezingo dira 2 kilo baino gehiago bildu eguneko eta pertsonako.

4.5.- Debekatuta dago bideak edo ibilbideak pintura edo bestelako elementu ezabaezinen bidez markatzea edo balizatzea, GRtik, PRtik edo Donostiako Udalak berak balizatutako bideetatik kanpo, non eta Udalak horretarako beharrezkoa den baimena ematen ez duen.

Donostiako Udalarekin zerikusirik ez duten taldeek nahitaez seinaleztatu beharreko ibilbide antolatuen proposatuz gero, Udalaren baimena jaso beharko dute aldez aurretik, eta alderdi hauek zehaztu beharko dituzte: markatu beharreko bidea, parte hartuko duten pertsonen kopurua eta jarduera zer datatan egingo den; horrelakoetan, nahitaezkoa izango da antolatzaileek edo baimendutako taldeko kideek seinaleak kentzea, jarduera amaitu eta berehala.

4.6.- Kanpatzea baimenduta dago, baina gauez bakarrik; hain zuzen, eguna ilundu baino bi ordu lehenagotik egunsentiaren ondorengo bi orduetara; kanpatzeko lekua garbi eta txukun utzi beharko da alde egitean.

4.7.- Debekatuta dago sua piztea Artikutza Etxalde osoan. Soilik barbakoak egin daitezke herrixkan horretarako egokitutako guneeetan.



4.8.- Debe katuta dago Artikutzako lasaitasuna eta baretasuna haustea megafonoak, bozinak, musika aparatuak, irratiak edo antzekoak erabilia, natura ingurunerako deseroso izan daitekeen bolumenean, Donostiako Udalak berak berariaz baimendutako kasuetan izan ezik.

4.9.- Bizikletaz, zaldiz edo oinez zirkulatzeko ez da beharrezkoa baimenik edukitzea.

Bizikletako ibilbideak onartutako pisten barrena joango dira eta onartutako pisten planoa betiere www.donostia.eus webean ikusi ahal izango da. Horietatik kanpo ezin izango dira ibili eta pisten barruan oinezkoek izango dute beti lehentasuna; hortaz, oinezkoen eta txirrindulari edo zaldizkoen artean gatazkak sortuz gero, etxaldeko bide jakinetan bizikletaz edo zaldiz ibiltzeko debekua ezarri ahal izango da.

5. EKIPAMENDU PUBLIKOEN ARAUAK: ATERPETXEA ETA OSATU ZAHARRA

5.1. ATERPETXEA

5.1.1.- Aterpetxea osorik alokatzen da, 10 eta 32 pertsona bitarteko taldeentzat. Erreserbak webean (www.donostia.eus) ezarritako prozeduraren arabera egin beharko da. Data bererako eskaera bat baino gehiago jasoz gero, jasotako lehenengoak izango du lehentasuna.

Erreserba baieztatzeko, webean adierazitako fidantza eta seinalea ordaindu beharko dira. Fidantza egonaldiaren amaieran itzuliko da, eskatutako data baino 15 egun lehenago erreserba ezeztatzen denean edo aterpetxean kalteak egiten direnean izan ezik.

5.1.2.- Gero, egonaldia hasi baino 15 egun lehenago, kontratua beteta bidaliko du Udalak, taldeko arduradunak sina dezan. Horrekin batera, Artikutzako aterpetxeko giltzak jasotzeko argibideak azalduko dira.

5.1.3.- Egonaldiaren zenbatekoa aterpetxera sartzeko data baino 15 egun lehenago ordainduko da, beranduenez. Zenbatekoa dagokion urtearen zerga ordenantzan eguneratuko da.

5.1.4.- Ezin da erre aterpetxearen barruan.

5.1.5.- Konpainiako animaliak soilik eraikinaren sotora sar daitezke; hortaz, debe katuta dago eraikinaren gainerako geletara horrelako animaliak sartzea.

5.1.6.- Aterpetxeko aparatuak eta instalazioak erabiltzeko, aterpetxean bertan erabiltzaileen esku dagoen arauen liburuxkan jasotako argibideei jarraitu behar zaie.



5.1.7.- Aterpetxean ostatua hartu duten pertsonak autoz joan daitezke bertaraino. Era berean, Artikutzan sartzeko eta bertatik ateratzeko aukera izango dute bisita arruntetarako ezarritako ordutegitik (8:00-20:00) kanpo. Horretarako, atezaintzako giltza bat emango zaie.

5.1.8.- Egonaldian, aterpetxean ostatua hartzen ari ez diren senideak edo lagunak eguna pasatzera autoarekin joatekotan badira, autoarentzat dagokion baimena eskatu beharko dute .

5.2. OSTATU ZAHARRA

Hurrengo artikuluetan Artikutzako herrixkan kokatutako Ostatu Zaharraren erabilera arautzen da. Eraikin horretan mahaiak eta eserlekuak daude, eta irekita egoten da egunez etxaldera joandako bisitariei eta txangozaleei aterpe bat eskaintzeko; leku eroso da atsedena hartzeko eta otorduak ere bertan egin daitezke.

5.2.1.- Ostatu Zaharreko erabiltzaileek lokala txukun eta egoera onean zaindu beharko dute, lokalean dauden beste pertsonekin gutxieneko bizikidetza arauak errespetatuz eta mahaien erabilera partekatuz.

5.2.2.- Ezin dira mahaiak erreserbatu, eta ezin dira lokaletik atera ez mahaiak ezta eserlekuak ere.

5.2.3.- Debekatuta dago erretzea.

5.2.4.- Debekatuta dago kozinatzea.



ERANSKINA: SAN AGUSTIN EGUNeko OSPAKIZUNA (ABUztuAK 28)

Tradizioari jarraituta, abuztuaren 28an, San Agustin, etxaldeko patroia ren jaia ospatzen da. Egun horretan ibilgailuak baimenik gabe sar daitezke. Sarrera, beraz, libre da, non eta arduradunek, ezinbesteko arrazoiak direla eta, ibilgailuen sarrera mugatzen ez duten. Edonola ere, arduradun horiek apartzeko ordena eta lekuari, eta zirkulazioari buruz emandako aginduak bete beharko dira.

Egun horretan, ekitaldi ugari antolatzen dira, eta jende asko biltzen da. Bildutako pertsona horiei guztiei janaria eta edaria emateko, bi txosna eta hainbat postu jartzen dira. Egunean giro ona jartzeaz gainera, postu horietan askotariko produktuak jartzen dira erakusgai eta salgai: artisautza, gazta, pastelak, taloak, etab. Horrez gain, hainbat produktu saltzeko postuak ere jartzen dira, askotariko erakunde eta elkarteren finantzaketan laguntzeko xedea dutenak: Kilometroak, Nafarroa Oinez, Eskola Txikiak, etab.

Hurrengo arau hauen xedea jaiaren alderdiak arautzea da:

SAN AGUSTIN EGUNERAKO INSTRUKZIOA

1.- Urtero eta jaia ospatu baino 3 hilabete lehenago, San Agustin jaiari buruzko Instrukzio bat argitaratuko da, deialdi publiko baten bidez, non salmenta postuak jartzeko baimenak banatzeko irizpideak ezarriko diren: eskaera noiz eta nola egin, esleitzeko irizpideak, bete beharreko baldintzak, etab.

TXOSNAK ESLEITZEA:

2.- Bi txosna jarriko dira: bat, Ostatu Zaharreko sotoan, eta bestea, *suhiltzaileak* deritzon eraikinean. Udala arduratuko da bi txostenen egiturak muntatzeaz, baina esleipendunaren erantzukizuna izango da lanerako behar diren elementuak eskatzea, hots: sukaldeak, edariak zerbitzatzeko tresnak, hozkailuak, etab.

3.- Edariak zerbitzatzeko, berriro erabil daitezkeen edalontziak erabiliko dira, eta udala arduratuko da zerbitzu horren kudeaketaz.

4.- Txosna bateko pertsona edo elkarte esleipenduna izateko, eskaera egin beharko da, alderdi hau arautzen duen deialdi publikoa argitaratzen denean. Eskaera dagokion inprimakian eta talde baten izenean egingo da, eta gutxienez taldeko 10 pertsonaren izen-abizenak eta NAN zenbakiak zehaztu beharko dira.

5.- Eskatzaile bakoitzari txosna bakar bat esleitu zaio. Eskaera bakarra izanez gero, bi txosnak esleitu ahal izango zaizkio eskatzaile berari.

6.- Txosna baten esleipena izan duen elkarteak ezingo du hurrengo urtean errepikatu, baldin eta bi eskaera edo gehiago badaude. Itxaron zerrenda bat sortuko da, eta urte batean kanpoan geratutako taldeek lehentasuna izango dute hurrengo urtean.



7.- Abuztuaren hasieran, udalak bere erabakia jakinaraziko die talde eskatzaileei.

8.- Elkarte esleipendunak urteko deialdian zehaztuko den fidantza jarri beharko du, bere jarduerak sor dezakeen ezein arazori aurre egiteko. Jaia ospatzeko 15 egun baino gutxiago falta direnean atzera egiten badu, ez zaio fidantza itzuliko.

9.- Txosnek higie eta osasun baldintza hauek bete beharko dituzte:

9.1.- Altxariak eta tresneriak leunak, iraunkorrak, iragazgaitzak eta erraz garbitu eta desinfektatzekoak izango dira.

9.2.-Janariak maneiatzeko behar diren mahai azalak jarriko dituzte (janari gordinak eta prestatutakoak aparte maneiatuko dira). Bertan, eskuak garbitzeko ur iturria jarri beharko dute, baita xaboi dosifikatzailea eta paperezko toallak ere.

9.3.- Janaria, edozein motatakoa izanik ere, ezingo da inoiz zoruan utzi. Horretarako, apalak jarriko dira.

9.4. Janaria hotzean gordetzeko hozkailuak behar adinakoak eta egokiak izango dira (janari gordinak eta egindakoak bereizita gorde beharko dira).

9.5. Hondakinak pedal bidezko estalkiak dituzten ontzietan gordeko dira. Birzikla daitezkeen materialak (botilak, kartoiak...) edukiontzietan utzi beharko dira, behar bezala sailkatuta.

9.6.- Janariak eta edariak baimendutako establezimenduetan erosiko dira. Garraioan eskakizun higieniko-sanitario guztiak bete beharko dira; horrela, hotz katea etenik gabea izango da, eta ez da tarteko manipulaziorik egingo.

9.7. Janari eta edari guztiak behar bezala identifikaturik egongo dira beren etiketekin, fakturekin edo emate agiriekin. Aipatutako dokumentuak (fakturak eta albaranak) gorde beharko dituzte ikuskatzaileei erakusteko, hala behar izanez gero.

9.8. OSASUN ARRISKU TXIKIA duten janari gordinak (lehengaiak) erabiliko dituzte, prestatu bezain laster zerbitzatu ahal izateko, tarteko manipulaziorik egin gabe:

-Instalazioetan, barazkien garbiketa eta zatitze lanak ez dira onartuko. Horiek ebakita eta garbituta erosiko dira (4. sortako barazkiak).

-Haragia eta haragiaren eratorriak zatituta ekarri beharko dira. Adibidea: solomoa, txorizoa, urdaiazpikoa, etab.

-Zatituta eta prestatuta erosi beharko da, dena zuzenean prestatu eta kontsumitzeko, txosnan aurretiazko maneiatze lanik egin gabe.

-Izozturik dauden produktuak hozkailuetan eta behar bezala desizoztuko dira, kutsa ez daitezen.



-Ez da inola ere hotz katea etengo; horretarako janari galkorrak beti hotzean gordeko dira; ez dira inoiz kanpora aterako.

-BEROTAN PRESTATURIKO ELIKAGAIAK. Temperatura handian egingo dira. Kontsumituko diren une berean prestatuko dira "hozkaileatik atera, berehala prestatu eta zerbitzatu". Horrela ez bada, berotan (> 65° zentigradutan) iraunarazteko gauza diren instalazioetan gorde beharko dira, prestatzen direnetik kontsumitu arte.

-HOTZEAN PRESTATURIKO ELIKAGAIAK: hotzean gordeko dira beti (hozkaileetan, hozteko bitrinetan, etab.).

-Janari hondakinak ez dira gordeko.

-Edariak jatorrizko botiletan gordeko dira zerbitzatu arte.

-Langileek elikagaiak manipulatzeko higieneari buruzko formazioa dutela bermatzen duen ziurtagiria izan beharko dute.

9.9.- Sukalde gisa erabiliko den gunean, Udalak su-itzalgailu bat jarriko du, une oro ikusteko eta eskuratzeko moduan egongo dena.

9.10.- Jarduera identifikatzeko txartela eta txosnako esleipendunaren izena alde batera utzita, ezingo da mezurik edo publizitaterik jarri.

9.11.- Ordutegi hau bete beharko da: 9:00-24:00.

BESTE ERA BATEKO POSTUAK

10.- Janaria edo bestelakorik saltzeko beste posturen bat jarri nahi izanez gero, eskaera egin beharko da, San Agustin eguna arautzeko deialdi publikoa egiten denean. Horretarako diseinatutako inprimakia erabiliko da eskera egiteko.

11.- Udalak irizpide hauek balioetsiko ditu:

- Antzinasuna, San Agustin egunera joaten.
- Produktuak bertako ekoizpenari lotuta egotea.
- Eskainitako produktuak saltzaileak berak egitea modu tradizionallean.
- Artikutza Nafarroan dagoela kontuan hartuta, lehentasuna emango zaie komunitate horretako elkarteek eskaerei.

12.- Gehienez, 15 postu jartzeko baimena emango da, eta udalak erabakiko du bakoitzaren kokalekua. Abuztuaren hasieran jakinaraziko zaie eskatzaileei hartutako erabakia.

13.-Eskatzailea arduratuko da postuaren muntaketaz, eta jaia amaitzean okupatutako gunea garbi utzi beharko du, sor ditzakeen hondakinen arrastorik gabe.



2. ERANSKINA: DONOSTIAKO UDALAREN TITULARITATEKOA DEN ARTIKUTZA FINKAK GOIZUETA, LESAKA, ARANTZA, ZUBIETA ETA BEINTZA-LABAIEN UDALEN HERRI-LURREKIN DUEN BANALERROKO LARREAK APROBETXATZEA ERAENDUKO DUEN ORDENANTZA/BALDINTZA-AGIRIA

1. Artikutzako soka-lerroko larre mankomunatuak 1.035,60 ha-ko aprobetxamendu-azalera dute guztira Artikutzan berean eta Goizueta, Beintza-Labaien, Zubieta, Arantza eta Lesakako Udalaren herri-lurretan. Horren zehaztapen kartografikoa **“Larreen tipologia, Artikutzako soka-lerroko soilguneetarako gomendio orokorrak eta azpiegiturakoak (Artikutza, Lesaka, Arantza, Zubieta, Beintza-Labaien eta Goizueta)”** izeneko agirian dago jasota.

2. Oinarri hauen xedea da Artikutzako soka-lerroko larreen aprobetxamendua arautzea, aprobetxamendu hori jasagarria izan dadin eta kontserbatzea eta hobetzea ahalbidetzeko, titularrek ezartzen dituzten baldintzekin bat etorritik.

3. Donostiako Udalak Artikutzako soka-lerroko larreak aprobetxatzeko ezartzen duen baldintza da finkako zuhaitzi-eremuan ganadua sartzea kontrolatzea eta arian-arian sartze horiek saihestea, basoaren birsorkuntza naturala bermatze aldera. Pixkanaka-pixkanaka, inguruz inguruko itxitura kenduko du, kontserbazio-gunerik kritikoenetatik hasita.

4. Toki-erakundeek baldintza gisa jarri dute Artikutzako inguruz inguruko itxitura pixkanaka-pixkanaka kentzea, bortuaren aprobetxamendu naturala logikoa izan dadin bertan diren baliabideekiko. Halaber, toki-erakundeek konpromisoa hartu dute haien abeltzainekiko: hau da, azizendak Artikutzako zuhaitzi-eremuan ez sartzea exijitzea eta baldintza hori betearaztea; hala gertatuko ez balitz, azizendak eremutik berehala ateratzeko konpromisoa hartu dute.

5. Eremu geografiko horretako larreak erabiltzeko eskubidea dute Goizueta, Beintza-Labaien, Zubieta, Arantza eta Lesakako udalerrietako abeltzaintza-ustategiek.- Eremu horretan bazkatzen den azizenda eremu geografiko osoan barrena mugitu ahal izanen da edonongoa dela ere.

6. Udalek erregistroa sortuko dute eta horretan aipatutako larreak erabiltzen dituzten abeltzain-ustategiak sartuko dituzte. Urtero, lehen seihilekoan, Eskualde Atlantikoa Kudeatzeko Atalari emanen diote erregistro horren berri. Eman beharreko informazioak honako hauek jasoko ditu: abeltzaintza-ustategien kopurua, titularra, azizenda (arraza eta buru-kopurua), mendian zenbat denboraz egonen den eta azizendak urrundik ezagutzeko azizenda horiek izanen dituzten markak/seinaleak (halakorik baleukate).

7. Artikutzako soka-lerroko larreak aprobetxatuko dituzten abeltzaintza-ustategiek animalien osasun-araudiak ezartzen dituen baldintzak bete beharko dituzte.

8. Urteko lehen hiruhilekoan, toki-erakundeetako ordezkariak batzartu eta soka-lerroko larreen aprobetxamenduaren bilakaera baloratuko dute, eta egon litezkeen gatazkei irtenbidea proposatuko diete.



Halaber, eremuan gauza daitezkeen hobekuntzak proposatuko dituzte, proposatutako helburuak finkatze aldera.- Bilera horiek Eskualde Atlantikoa Kudeatzeko Ataleko teknikariek suspertuko dituzte, eta egindako balorazioaren eta hitzartutako akordioen akta jasoko dute.-

Aldeetako batek, egoki iritziz gero, ezohiko bilerak egitea eska dezake Eskualde Atlantikoa Kudeatzeko Atalaren bitartez, behar bezala arrazoiturik.

9. Soka-lerroko eremu geografikoan abeltzaintza-azpiegiturak sortzea eta horien mantentze-lana egitea lurraren titularrak hartuko du haren gain.

10. Azienda maneiatzeko, ezinbestekotzat hartzen dira gatz-guneak banatzea, ur-guneak sortzea eta sastrakak kentzea larreei buruzko azterlanean ezarritako eremuetan.- Artikutza finkan sastrakak kentzeko eginen diren lanak ez dira, sekula, zuhaizti-eremuaren ertzerantz iritsiko, horren xedea izanik azienda basora iristea erraztuko ez duen sastraka ekotono - orla garatzea ahalbidetzea.

11. Plangintza-agiriaren arabera, ez dago inolako eragozpenik azizendak larreak urte osoan aprobetxatzeko; alabaina, mendian ez dago baimendurik elikadura-gehigarrik, gatzak izan ezik.

12. Larreak aprobetxatzeko oinarri hauetan berariaz zehaztu ez den erreferentziatzko erregulazioa eta araudia honako hauek eraenduko dute: Donostiako Udaleko Ondareari buruzko araudiak; tokiko ordenantzak eta gaiari buruzko Nafarroako Gobernu araudiak, Nafarroako Oihan Ondarea Babestu eta Garatzeari buruzko 113/1990 Foru Legean, Basa Fauna eta haren Habitata Babestu eta Kudeatzeari buruzko 2/1993 Foru Legean eta Nafarroako Naturguneei buruzko 9/1996 Foru Legean jasoa.

13. Artikutzako soka-lerroko larreak aprobetxatzeko egungo oinarri arautzaileak indarraldian egonen dira aldean arteko adostasunak irauten duen bitartean.